



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2023IPLE0012

Eguna: 2023-07-18

Ordua: 19:00 – 19:17

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu
- Joseba Ilari Etxeberria Calvo Astigarragako EH Bildu
- Aitor Guemes Oiarbide Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena Astigarragako EH Bildu
- Estibaliz Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Beatriz Lasagabaster Izagirre Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco Astigarragako EAJ-PNV
- Manex Aldalur Beldarrain Astigarragako EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak

Bertaratu ez direnak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezeko udal kontu-hartzailea

Aztergaiak

1. 2023ko uztailaren 4ko akta onartzea.
2. 2024 urteko herriko jai eguna
3. 2022ko Kontu Orokorra.
4. Kreditu aldaketa: kreditu gaikuntza, KALD-0011.
5. Astigararako udal kiroldedia handitzeko eta eraberritzeko oinarritzkoa proiektua.
6. Astigarragako udal hilerrian tanatorio bat gauzatzeko aurreproiektua.
7. HAPOn HEA 21ko "Zarkumendegi" unitateko hiritartze proiektuaren adenda.
8. Informazio, galdera eta eskariak.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Esan-eginak eta erabakiak

1. 2023ko uztailaren 4ko akta onartzea.

Joseba eta Olaia zinegotziak abstenitu egin dira, aurreko bilkurara bertaratu ez zirelako. Gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

2. 2024 urteko herriko jai eguna.

Alkateak bozeramaile batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

“Bakarra.-Uztailaren 26a, Santa Ana eguna, izendatzea 2024ko herriko jai eguna.”

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

3. 2022ko Kontu Orokorra.

Alkateak azaldu ondoren alegazio epean ez dela bakarra aurkeztu, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

“Lehena.- 2022eko Kontu Orokorra onartzea.

Bigarrena.- 21/2003 Foru Arauak, 63.5 artikuluan xedatzen duenaren arabera Udalak behar bezala onetsitako Kontu Orokorren berri emango dio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berriaz ezarritakoaren arabera.”

Maria zinegotziak hitza hartu eta azaldu du korreo elektronikoen arazoak izan dituztela eta ez direla garaiz konturatu batzorde informatiboaren deialdiak, eta bertaratu ez direnez, gai askorekin ados egon arren, osoko bilkuran ezin dutela horien alde bozkatu.

Jarraian bozkatzera ekin zaio eta irizpena onartu da, aldeko 9 botoekin (Astigarragako EHBildu eta Udal Talde Euskal Sozialistak kideena) eta 4 abstentzioekin (Astigarragako EAJ-PNV kideena).

4. Kreditu aldaketa: kreditu gaikuntza, KALD-0011.

Alkateak kreditu aldaketaren zergatia eta nondik norakoak azaldu ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

“Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedienteak, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
6	INBERTSIO ERREALAK	180.000,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		180.000,00

SARRERAK



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Kap.	Izena	Euroak
1 (SARRERAK)	ZUZENEKO ZERGAK	70.000,00
3 (SARRERAK)	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	110.000,00
	FINANTZAKETA GUZTIRA	180.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.”

Jarraian bozkatzera ekin zaio eta irizpena onartu da, aldeko 9 botoekin (Astigarragako EHBildu eta Udal Talde Euskal Sozialistak kideena) eta 4 abstentzioekin (Astigarragako EAJ-PNV kideena).

5. Astigarrarako udal kiroldegia handitzeko eta eraberritzeko oinarrizkoa proiektua.

Alkateak azaldu du proiektu honek jatorria duela herritarren eta zerbitzuen beharrak zehazteko 2021ean egindako prozesu batean, horren ondoren esleitu baitzen obra-proiektua idazteko (oinarrizkoa eta exekuziozkoa) eta zuzendatritza lanak egiteko zerbitzu-kontratua. Gaineratu du obra bi faseetan egitea aurreikusten dela, eta asmoa dela oraingoz lehendabizikoa bakarrik gauzatzea.

Ondoren, azaldu ditu proiektuaren nondik norakoak eta lehen faserako aurreikusitako kronograma, eta obrak eta zerbitzuak batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

“Bakarra.- Onartzea Astigarragako kiroldegia handitzeko eta eraberritzeko oinarrizko proiektua, Xlark, S.L. elkarteak 2023ko maiatzean idatzia.”

Jarraian bozkatzera ekin zaio eta irizpena onartu da, aldeko 9 botoekin (Astigarragako EHBildu eta Udal Talde Euskal Sozialistak kideena) eta 4 abstentzioekin (Astigarragako EAJ-PNV kideena).

6. Astigarragako udal hilerrian tanatorio bat gauzatzeko aurreproiektua.

Alkateak azaldu du azken urtean hilerriko emakidak eguneratu direla eta hileta zibilak egiteko ordenantza bat ere onartu dela, eta beharrezko ikusten dela tanatorio bat edukitzea hilerrian bertan. Gaineratu du aurreproiektua onartzeak ez duela esan nahi obra gauzatuko denik, baina egoki ikusten dela aurreproiektua onartua edukitzea, dirulaguntzaren bat aterako balitz hori eskatu ahal izateko.

Ondoren, obrak eta zerbitzuak batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

“Bakarra.- Onartzea Astigarragako hilerrian tanatorioa gauzatzeko aurreproiektua, Sostoako Arkitektoak, S.C.P. elkarteak 2023ko martxoan idatzia.”

Jarraian bozkatzera ekin zaio eta irizpena onartu da, aldeko 9 botoekin (Astigarragako EHBildu eta Udal Talde Euskal Sozialistak kideena) eta 4 abstentzioekin (Astigarragako EAJ-PNV kideena).

7. HAPOren HEA 21ko “Zarkumendegi” unitateko hiritartze proiektuaren adenda.

Alkateak adierazi du adenda hau dela Astigarraga Lantzen SA sozietate publikoaren administrazio-kontseiluak aho batez onartutakoa. Azaldu du enpresa publikoak urbanizazio proiektua idatzi zuela Cementos Rezolarekin hartutako konpromisioa betetzeko, eta ondoren partzela baten salmenta lizitatoriora atera zuela, eroslearen betebeharrak izanik eremu guztia urbanizatzea sustatzaile bezala. Gaineratu du



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

lizitazio horren ondoren partzela Construcciones Moyuari saldu zaiola, eta horrek proposatu duela urbanizazio proiektua egokitzea, besteak beste, errekaren ibilbide handiagoa azaleratzeko, Ur Agentziaren ongi ikusia duena, baina erakunde horretan baimena izapidetu behar dela, eta horretarako udalak ere adenda onartu behar duela.

Ondoren Hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

“Lehena.- *Onartzea Endara Ingenieros Asociados SLk 2023ko ekainaren 29an idatzitako "Adenda al Proyecto de Urbanización del Polígono industrial de Zarkumendegi de Astigarraga", udal-arkitektoak 2023ko ekainaren 30eko txostenean ezarritako baldintzekin.*

Bigarrena.- *Erabakiaren berri ematea Astigarraga Lantzen SArI, Construcciones Moyua SLri, Uraren Euskal Agentziari eta administrazio-espedituean interesa duen beste edozeini.”*

Jarraian bozkatzera ekin zaio eta irizpena onartu da, aldeko 9 botoekin (Astigarragako EHBildu eta Udal Talde Euskal Sozialistak kideena) eta 4 abstentzioekin (Astigarragako EAJ-PNV kideena).

8.- Informazio, galdera eta eskariak.

Santio jaietako soka-dantzaren azken ensequak zehaztu ondoren, alkateak gogorazi du jaietan hurren pregoia 12:00etan izango dela, eta 19:00etan egingo dela bestea.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2023ko uztailaren 18an

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko idazkaria